

### EUSKALERRIKO IPUIÑAK

Kuliska sorta-k, Zarauz-ko Itxaropena-n egiten denak ere edatu du *Euskalerriko ipuiñak*, Euskaltzaindiak eraginda. Irigaray jaunaren aitzin-solasa du.

### EUSKERAZKO MISIÑOAK

Aurten, Bilbon, euskerazko misiñoak egon dira San Juango eleizan, apirilkeko 29-tik maiatzeko 5-era. Sermolariak Aita Zubieta anaiak, frantzizkotarrak, izan ziren. Eleiza guztiz beterik egon zen aste osoan.

### BIZKAIERAZKO EUSKAL-METODOAREN SARIKETARAKO OIÑARRIAK

1.—Euskaltzaindiak sari bi jartzen ditu, leenbizikoa sei milla pesetakoa eta bigarrena bi millakoa bizkaiko euskera ikasteko metedorik onenentzat.

2.—Gaur egunean beste izkuntza batzuek ikasteko erabiltzen den sistema modernuren bat artu diteke eredutzat.

3.—Aditzaren aldetik, aal dela, errez azaltzeko modua billatzen saiatu, ikasleari erreztasuna ta argitasuna emanik.

Asko komeni da antigualeko autore bizkaitarrak erabiltzen dituzten formak estudiatzea: Mogel, Añibarro, eta abar.

4.—Itz eta eraen aldetik, izkuntzaren bizian sustrairik sakonena dutenetara eta edatuenetara jotzeko aalegiñak egin.

5.—Epea 1.958-garreneko martiaren 31-ean bukatzen da.

6.—Lanak bialdu bear dira: Academia de la Lengua Vasca.—Ribera, 6 Bilbao, izenpetu gabe, lema batekin. Sobre itxi batean sartu bear dira izena ta zuzenbidea.

Badu Euskaltzaindiak literatura-sari bat sortzeko asmoa ere.

### EMENDIK AURRERA

Emendik aurrera atal oneri deituko diogu "Berriak et gai laburrak" eta sartu aal izango dira zenbait gauza jakingarri, lan bat egiteko aiña eztirenak.

### IZENTAZIÑOAK

Euskaltzaindiak izendatu ditu: Lopez Mendizabal'dar Ixaka, deduzko; Ormaetxea'tar Nikola, euskaltzain; eta Ignacio Urquijo, Conde de Ospin de Urquijo, urgazle.